

# Ezpalak

JON TORNER

## Karmelegartua omenduko dute Hatsaren Poesia Egunean

HILAREN 18AN egingo da Hatsa elkarteak eta Bergarako Idazle Eskolak antolatutako Poesia Eguna, Senpereko (Lapurdi) Larraldea etxean, *Maite ditugun olerkariak*, *Karmelegartua bibotzean!* lelopean. Pasa den abuztuan hil zen idazle gipuzkoarra (Aretxabaleta 1959-2010), minbiziaz. Haren poemak irakurriko dituzte Hatsaren Poesia Egunean, mendi ibilaldia eta bazkaria ere izango dituen hitzordu literarioan.

## ‘Gaztezulo’-ren bideo lehiaketa

GAZTEZULO aldizkariak bere irakurleak eguneroko bizitza azaltzen duen film bat egitera gonbidatu ditu. Pelikulak minutu bat eta hiru minutu arteko iraupena izan behar du. Parte hartzaileek Euskaltubera edo Youtubera igo beharko dituzte euren bideoak, eta azaroaren 15a baino lehenago gaztezulo@gaztezulo.com helbidera bidali behar dira bideoen loturak. Irabazleak 1.500 euroko saria jasoko du.

## Julio Gergely izango da Bilboko Abesbatzako zuzendari berria

HILAREN 18AN Julio Gergely (1951) errumaniarra izango da Bilboko Abesbatzako zuzendari artistiko berria, Joan Cabero Espainiako Koru Nazionalako zuzendari izendatu ostean. Azken lau urteetan Sevillako (Espainia) Maestranzaren koruko zuzendaria izan da Gergely.

**Luis de Ocharan** (1856-1926) argazkilariaren irudiez osatutako *On Kixote* erakusketa hilaren 26a arte izango da ikusgai Zarauzko (Gipuzkoa) Photomuseumen. Luis de Ocharanek *On Kixote* eleberriko eszenak hartu zituen argazkiak egiteko. Bere asmoa horiek bozeto eran etxeko dekorazioan ipintzea zen. Baina ez zuen inoiz amaitzerik lortu. 1905ean plaka batzuk atera zituen, eta orduko aldizkari askotan argitaratu ziren. Egin zituen gainerako lanak 36ko Gerran suntsitu zituzten.




● **Jone Miren Hernandez Hitza, ahotsa eta bertsolaritza; genero ikuspegitik egindako irakurketa proiektuaren arduradunak Bertsolari aldizkarian:**

«Dokumental batean Joxerra Gartzia esaten zuen bertsolaritza dela gure gizartean gelditzen den erritual bakarra. Horrekin gelditu nintzen. Antropologian askotan planteatu izan da errituala ordenaren adierazpen moduan: errituala = ordena. Eta batzuetan pentsatzen dut emakume bertsolariek kaos pixka bat sortu dutela orden horretan. Segur aski, emakumeak sartu direlako, gizon batzuk lekuz kanpo sentitu dira, edota ez; batzuk beharbada bere buruari plantetazen hasi dira zenbait egoeraren aurrean non kokatzen diren gizon gisa edo pertsona gisa; beste batzuek, agian, eredu hori, maskulinitate hegemonikoak agintzen duena azpimarratzea edo baieztatzea erabaki dute...».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)


  
 ellauri
   
 HOTELA
   
*Natura sentitu*
  
 Landa Turismoa
   
 Enpresa Zerbitzuak

Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | [ellauri.com](http://ellauri.com)